



## *Teologia (egin) Euskal Herrian*

PAULO AGIRREBALTZATEGI\*

“Teologia Euskal Herrian”: horrela formulatu zidaten hasieran gaia. Neure zalantza handiak izan nituen, gaiari nondik heldu erabaki ezinik. Bazirudien Euskal Herrian edota euskal herritarrek hemen nahiz munduan zehar landutako teologiaren historia egitea eskatzen zidatela. Eta horrela hasi nintzen informazioa bilatzen eta neure artikulua zirriborratzen: Euskal jatorriko teologo handiak historian barna, Europan eta Ameriketara jardunak, batetik, eta, bestetik, teologia irakatsi, ikertu eta lantzeko Euskal Herriko instituzioak (Seminarioak, Fakultateak, Teologi Institutuak).

Baina laster konturatu nintzen, *Hemen* zenbaki honetarako eskaturiko beste artikulua zenbait partez behintzat alor berean jardun zitekeela; horrela neure ekarpen txoa bestelako ikuspegitik egitea pentsatu dut, tituluko parentesi arteko “(egin)” hori gaineratuz. Beraz, teologo euskal herritar historikoei, gehienbat Euskal Herrikan kanpo beren teologia landu dutenei buruzko gaingiroko indikazioen batzuk eman ondoren, neure gogoeta xumeak eskainiko ditut, besterik gabe, *Euskal Herrian teologia egiteari* buruz.

Barkamena eskatuz hasi behar dut, ordea, neure ausardiagatik: aurrenik Euskal Herrian profesionalki teologia irakasten, ikertzen eta lantzen Teologi fakultateetan –hiru behintzat baditugu– eta bestelako Teologi instituzioetan

---

\* Teologian doktorea. Donostia

diharduten irakasle eta idazleei, edota kristau komunitateetan eliztarren laguntzaile diharduten pastoralistei. Ni neu ere jardun nintzen teologiaren irakaskuntzan gaztetako urteren batzuetan (Erroman eta Deustun), baina aspalditxo utzita daukat teologo profesionalarena; hala ere, neure heziketak eta zaletasunak eraginda, gogokoa izan dut teologiaren eremuetara itzultzea, aldizkarietatik-eta zerbait idazteko aukera eman didatenean. Garai batean (1975-1977) “kultur teologia – euskal teologia” eztabaidaren barruan argitaratu nituenak eta geroago *Herria-2000-Eliza* aldizkarian batez ere Euskal Herrian eta Euskal Herritik egindako askapen-teologiaren inguruan argitaraturiko idazlanak: horiengatik eskatu didatela uste dut orain nire ekarpen txo hau.

## 1. Teologo euskal herritarren historia erbestekoa: aipuren bat edo beste

8 Euskal Herriko eta euskal herritarren teologiagintzaren historia marraztearena alde batera utzi badut ere, egokia iruditu zait euskal jatorriko teologo handi eta ezagunen batzuen aipua egitea, ordena kronologikoan; besterik ez bada ere, bigarren eta hirugarren atalean eskainiko ditudan gogoeten ildoari kontraposizioan ipintzeko nolabait.

Euskal Herriko Erdi Aroan, Europakoan bezalatsu, monasterioetakoa da bereziki erlijiozko kultura, eta pentsamendu teologikorik aurkitzekotan horietan aurkitu behar –“teologia monakala” deitu izan dute-. Nafarroako erresuman daude lehen monasterioak, eta batzuek VIII. eta IX. mendetik datoz: Iratxe, Leire, adibidez; Oliva eta Irantzu beranduagokoak dira (XII. mendea). Donejakueren bidetik datoz Europako aire berriak horietara, eta goi-mailako ikasketak indartu egin zituzten, teologikoak bereziki. Irantzuko monasterioaren fundatzailea, hain zuzen, gertatuko zaigu ezagutzen dugun lehen tratatu teologikoaren idazle euskal herritarra: Pedro Pariskoa, jatorriz Artaxonakoa, Parisen ikasle eta irakasle, eta gero Iruñako apezpiku. “Hau da ezagutzen dugun Euskal Herriko lehenengo irakasle eta idazle teologikoa, *Tractatus de Trinitate et Incarnatione* baten autorea, Salamancan gordetzen dena”, dio Joxe Azurmendik aipaturiko bere idatzian (359. or.).

XIII. mendean, ordea, Eskeko Ordenetako fraideek hartzen dute monakoen testigua teologiagintzan, bestelako hainbat jakintzen alorretan bezala: Europa osoan oro har, baina bereziki Nafarroan, batzuetan monasterioekin

batera. Domingotarrek beren ikasketak antolatu zituzten Iruñan eta Lizarran: Gramatika eta Logikarekin batera, Teologia ere bai. Ordurako baziren unibertsitate ospetsuak Europan (Paris, Oxford, Salamanca), non teologiaren irakaskuntzak leku guztiz apartekoa baitzuen; Eskeko Ordenetako teologoak hasten dira nabarmentzen horietan: Domingotarrak eta Frantziskotarrak bereziki, batez ere XIII. mendetik aurrera. Euskal Herritik Parisekora begiratzen dute batez ere Erdi Aroko mende horietan. Parisen lortu zuen teologiako maisu titulua Pedro Atarrabiakoak (edo Nafarroakoak), “Doctor fundatus” ospetsuak, Pedro Lombardoren Sententzien I. liburuaren bere Iruzkina idatzi zuenak. XIV.aren hasieran Joana Erreginak Nafarroako Kolegioa sortu zuen Parisen, nafarrek bertan aurki zezaten babesa ikasketak lasai egiteko. Eta aldi beretsuan sortu zuen Parisera zihoazen klerikoentzako ikastetxea ere. Mende horretan ez dugu teologo euskal herritarren izen nabarmenik aurkitzen; aipatzekoa dugu, ordea, Arnaldo Barbazangoa, okzitaniarra, baina 1319tik aurrera Iruñeko apezpikua izan zena, eta Sakramentuei buruzko *Summa* idatzi zuena (1354).

**Eskeko Ordenetako fraideek hartzten dute monakoentestigua teologigintzan, bestelako hainbat jakintzen alorretan bezala**

9

XVI-XVII mendeetan, ordea, autore euskal herritar asko, izen eta eragin handikoak, aurkituko ditugu kristau teologiaren eta espiritualitatearen alorretan idazle, irakasle eta polemista zihardutenak eta nabarmendu zirenak, ez Euskal Herrian bertan, kanpoan baizik: Espainian, Frantzian eta munduan zehar. Ospetsuenak aipatu besterik ez dugu egingo hemen: Bartolome Karrantza (1593-1576), nafarra, erreforma katolikoan eragin handikoa, Toledoko artzapezpikua, eta *Catechismo christiano* obraren autore, besteak beste; Frai Diego Lizarrakoa (1524-1578), *Libro de la vanidad del mundo. Meditaciones devotísimas del amor de Dios* espiritualitate-liburuaren autore hain ezaguna; Pedro Hurtado Mendoza, Balmasedado jesuita (1578-1651), teologiako eta filosofiako hainbat libururen autore; Domingo Bañez (1528-1604), bere burua Arrasatekotzat zeukana –“mondragonensis”–, ospetsua bereziki garai hartan eztabaidagai teologiko nagusi bihurtua zen

grazia eta libertateari buruzko arazoan eskola egin zuena: bañezianismoa eta bañeztarrak. Horren kontrako eskolakoen –molinisten– artean ere Joan Martínez Ripalda nafarra (1594-1648) aurkituko dugu, jansenisten kontrako eztabaidan ere sartua ibili zena. Eta jansenismoaz ari garela, nola ez ekarri hona Joan Antonio Duvergier “Saint-Cyran” baionarra (1581-1643), korronte teologiko horren sortzaile Jansenioren oso laguna eta kristau espiritualitatean eragin handikoa, batez ere Parisko Port-Royal-eko monasterioko zuzendari espiritualaren kargutik. Azkenik, ezin utzi zerrendatxo honetan aipatu gabe San Ignazio Loiolakoa, berau ere Parisen teologia ikasia, eta *Gogo Jardunak* liburuaren bidez eragin hain handi eta zabala eduki duena Elizaren historian.

10 Trentoko Kontzilioa amaitu eta handik bi mendera eraiki zituzten Euskal Herriko lehen seminarioak; XVIII. mendearen azken aldekoak dira: Larresorokoa (1774) eta Iruñekoa (1777); Calahorrako diozesiaren barruan zeuden Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako apaizgaiantzat, berriz, 1776an eratu zuten lehen seminarioa, Calahorran bertan. Bitartean apaiz hainbat kanpoko unibertsitateetara joan ohi ziren filosofia edo teologia ikastera: hala nola gure Axular handia (Salamanca ikasia). Dena dela, Erljiosoen filosofi eta teologi eskolaren bat edo beste baziren (Tolosan, Frantziskotarrena; Iruñean, Domingotarrena), fraidegaiekin batera diozesiko apaizak ere onartzen zituztenak; Jesuitek ere beren ikastetxeetan eliz ikasketak egiteko aukera eskaintzen zuten –Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu predikari eta idazleak horrelakoetan irakasleak izanak ziren–. Horrelako ikastetxeetan edo kanpoko unibertsitateetan ikasiak ziren garaiko debozio- eta sermoi-liburuaren idazleak, gaztelaniaz nahiz euskaraz, –azken hauetako hainbat euskal literaturaren historian sartuak dira–. Euskal Herriko unibertsitate apalek (Iratxekoak edo Oñatikoak) bazituzten teologiako ikasketak, baina ez zuten euskal teologo sonaturik eman, beren lehen mendeetan; are gutxiago XIX. mende katramilatuan. José Saenz de Aguirre Kardinala eta teologo famatua (1630-1699) –irakasle Iratxan eta Salamancan– Logroñokoa zen, bere abizeneko “Agirre” eta guzti.

Seminarioek eta erlijiosoen ikastetxeek bideratuko dute teologia eskolastikoaren irakaskuntza instituzionala Euskal Herrian, XX. mendearen bigarren zatian, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren eta nolabait diozesien eta erlijioso-ordenen teologi ikastetxeen beheraldiari erantzuteko Deustuko Teologi Fakultatea (1966), Gasteizkoa (1967), eta

Iruñeko OPUSena (1969) eraikitzen dituzten arte –urte batzuk geroagoak dira Donostiako eta Bilboko Teologi eta Pastoral Institutuak–. Kontzilioaren eraginak eta ikerketa biblikoen eta teologi zientzien eguneratzeak bestelako airea emango diote oro har ikastetxe horietako teologiaren irakaskuntza akademikoari eta ikerkuntzari, Eliza unibertsaleko korronte teologiko berriei ere lekua emanaz. Horietako nahiz munduko beste unibertsitateetako irakasleen artean hainbat teologo euskal herritar seinaltzekoa litzateke; baina hemen bi bakarrik nabarmenduko ditut, mundu zabalean eta Askapenteologiaren korrontean izen handia irabazia dutenak: Ignazio Ellakuria Portugaletetarra (1930-1989) eta Jon Sobrino (1938-), euskal jatorrikoa –gurasoak Barrikakoak–, Bartzelonan jaioa –10 urterekin Euskal Herrira itzulia–.

***Deustuko Teologi  
Fakultatea (1966),  
Gasteizkoa (1967), eta  
Iruñeko OPUSena (1969)an  
erakitzen dituzte***

Ikusi dugunez, euskal herritarrek egindako teologia Euskal Herritik kanpo egindakoa da neurri handi batean: gure teologorik ospetsuenak kanpoan jardun ziren irakasle, eta beren erreferentzia ez zuten Euskal Herria ez Euskal Herriko Eliza. Beraz, ez digute argitasunik ematen gure tituluan adierazitako gaiari buruz: “Teologia (egin) Euskal Herrian”.

Era berean, Vatikanoko II. Kontzilioaren aurretik gure seminarioetan eta bestelako teologi ikastetxetan irakasten zuten teologia instituzional, eskolastiko eta akademikoa “teologia unibertsaltzat” ematen zuten, agian Euskal Herriko elizari buruzko aipu eta aplikazioren bat edo besterekin.

## 2. Teologia egin

San Agustinen iritzian oinarrituta, teologia funtsean norberaren fedez gogoeta egitea da, fededunaren jardun normala beraz. “Sinesten duenak, gogoetatu egiten du bere fededun izatea eta bizitzea: sinetsiz gogoetatzen du, eta gogoetatuz sinesten du”, dio berak. Kerigma, katekesia eta teologia jarri ohi dira hiru fasetzat-edo fedearen sorreran eta heldutasun bidean. Kerigma edo Ebanjelioaren muinaren aldarrikapenaren bitartez pizten de fedea

fededunarengan; katekesiak ematen dio fededun berriari fedearen funtsezko azalpen arrazionala, sineskizun behinenak irakatsiz eta fede-bizitzako oinarriak erakutsiz; teologia, berriz, fededunaren gogoeta da, bere fedeari buruzkoa: edozein fededun helduren jarduera pertsonala. Fedea bizi, berriz, elkartean bizi dugu fededunok; horrela teologiak ere dimentsio komunitarioa hartzen du; eliz elkartearen jarduera bihurtzen da teologia ere.

## ***Kerigma edo Ebanjelioaren muinaren aldarrikapenaren bitartez pizten da fedea fededunarengan***

Hori da teologiaren funtsezko adiera, sekula ez galtzekoa. Eta horren argitan ulertu behar dugu teologiaren zientzia, teologo profesionalak egiten eta irakasten dutena. Horiek eskolan, liburuetan, aldizkari edo hitzaldietan lantzen duten teologia sistematikoa fededunaren eta fedekomunitatearen gogoeta teologiko

12

bitaletik bereizezina da berez, nahiz eta sarritan urrunekoak diruditen teologia bien formek. Horrela ulertzen da hobeto teologo profesionala –ikertzaile, irakasle edo idazlea– Elizaren zerbitzuan dagoela esatea, ez Eliz artzainen edota hierarkiaren zerbitzuan bakarrik –Eliz instituzioko funtzionario edo–, eta bai kristau herriaren zerbitzuan, zuzenean.

Ikuspegi horrek gidatu eta baldintzatzen du –behar luke– teologo “profesionalaren” lana, bai abiaburuan –nondik egin teologia–, bai ibilbide edo metodologian –nola egin teologia–, eta bai helburuan –norentzat egin teologia–. Eta teologoen ari garenean, ez gara ari Teologi fakultateetan edo seminarioetan profesionalki irakasle dihardutenez bakarrik, eta bai pastoraltza lanean kristau-komunitateen gidari ari direnez ere. Horrexegatik ere egokiago mintzatzen gara teologia egiteaz, sortzeaz edo lantzeaz, bizitzaren dinamika bizian, eta ez teologia irakasteaz bakarrik: Teologiaren historia emanez, nahiz teologo klasikoen edota teologi eskola tradizionalen irakatsiak errepikatuz.

Sorkuntza-lana da batez ere teologia, esperientzia kultural eta sozial bakoitzaren dinamikan kristau komunitateak bizi eta espresatzen duen fedea argitzen saiatzen dena. Bereziago zera da teologia: herri edo gizatalde bakoitzak –eta horren barruan kristau elkarreak–, eratzen eta eraldatzen

duen kulturaren –kultur konfigurazioaren– araberako fedezko gogoeta sistematikoa eta kritikoa.

### 3. Teologia egin Euskal Herrian

Hasteko, badirudi egin daitekeela teologia Euskal Herrian, Euskal Herria onartu, ezagutu eta asumitu gabe. Nahikoa da agian, bertan fededunen komunitateren bat bizitzea, bere fedea gogoetatzen duena, baina bere bizi-ingurune sozial eta kulturaletik kanpo. Horrelako teologo eta teologia askotxo ezagutu dugu. Hemen, ordea, Euskal Herrian eta Euskal Herriatik egindako edo egiteko teologiaz ari gara. Eta horretarako

beharrezkoa da Eliz komunitatea Euskal Herrian bizi dena, bere fedea eta kristau esperientzia bere herritartasunaren barrutik bizi duena, eta Euskal Herriaren dinamika sozio-kulturalean adierazten duena bere fedeari buruzko gogoeta teologikoa.

Teologiaren metodoa aztertzean “leku teologikoez” –*loci theologici*– mintzatu ohi dira adituak, Melchor Cano teologo espainolari jarraituz. Leku teologikoak dira, hain zuzen, teologia egiteko oinarrizko iturriak, edo arrazoibideak. “Leku teologikoen” eztabaidan sartu gabe, “lekuko teologiaz” ari gara hemen, lekuan lekuko fededunen komunitateak edo lekuko elizak egiten duen gogoeta teologikoa, leku eta garai jakin batean. Dena dela, ‘lekuko’ hitzak ez du geografi barrutia adierazten zuzenean hemen; kultur barrutia adierazten du funtsean.

Bada Euskal Herria... Definizio eta zehaztapenetan sartu gabe hemen, bada Euskal Herria, bere historia eta kultura eta hizkuntza bereziarekin, bere herri-kontzientzia duena. Urte eta mende luzeetan desintegrazio sozial eta kultural nabarmena jasan du; baina azken 60-70 urteetan bere eraldatze kultural, sozial eta nazionalaren prozesu bizian dihardu, bere identitatea berreskuratzeko, bereziki bere hizkuntza, Euskara.

***Beharrezkoa da Eliz  
komunitatea Euskal Herrian  
bizi dena, bere fedea eta  
kristau esperientzia bere  
herritartasunaren barrutik  
bizi duena***

Kulturak definitzen du funtsean Herria. Baina zer da kultura? Adiera zabalean hartzen dugu hemen: Ez zuzenean Herriaren ezaugarri tradizionalen eta folklorikoen multzotzat, horren garai bakoitzeko bizimoldetzat baizik. Etengabe zehatzuz doa, ordea, bizimolde hori, inguratzen duen errealitate osoa nolabait gizartutzat, askatasunean garatzeko barrutia eratuz norbanakoarentzat eta gizartearentzat. Horregatik, funts-funtsean lana dago kulturaren kontzeptuaren baitan, gizon-emakumeen sortzeko ahalmen eta ihardueratzat hartuta. Kultura, ordea, Herriaren bizimolde berezia izanik, horren sinbolo-sistema bihurtzen da, beraren balioak eta pentsaera adierazteko baliabide. Beraz, eta nolabait objektibizatuz, Herri bakoitzaren adierazpen-sinbolo sistema gertatzen da kultura.

***Euskal Herria, kultur  
barruti bezala -egiten ari  
den Herria- lekuko teologia  
egiteko barrutia***

14

Bada, beraz, Euskal Herria, kultur barruti bezala -egiten ari den Herria-, lekuko teologia egiteko barrutia. Dena dela, euskal herritartasuna ulertzeko eta bizitzeko modu ezberdinak egon daitezkeela, eta egon badaudela, ezin ukatuko dugu. Era berean Euskal Herrian (eta Herritik) teologia egiteko modu ezberdinak egon daitezke, eta badaude.

Azken 50 urteotan, lehenagotik, 1950.eko urteetatik, datorren Euskal Herriaren pizkundekulturaletasozialaren etabertako eraldatze erlijiozkoaren barruan, eta bereziki Vatikanoko II. Kontzilioaren eraginez, teologi korronte bereziak agertu dira hemengo Elizan. Gehienbat ikastetxeetako (seminario edo fakultateetako) teologia akademiko eta instituzionaletik kanpo gertatu dira horiek; sarritan, ordea, beraietako irakasleren batzuk izan dira eragile eta protagonista; gehienetan eliztarren oinarrizko talde eta mugimendu ez-ofizialean eduki dute harrera eta oihartzunik handiena, batzuetan beraiek gertatuz gainera teologiagintzako leku eta subjektu bizi.

Hego Ameriketara sortu eta landuriko askapen-teologia bizi eta ugariak eragin apartekoa izan du Euskal Herriko Elizan, beharbada garai haietako Europako "Teologia politikoak" baino handiagoa; korronte ezberdinak sortu ditu, ordea, haren inspirazioa eta metodologia hona ekartzean.



1960-70 urteetan Espainiako eta Euskal Herriko *Sozialismoaren aldeko kristauen* (SAK) mugimendua Gustavo Gutiérrez eta jarraitzaileen teologia asumitu eta Espainiaratzen saiatu zen. Garai hartako hainbat kongresu, agiri eta aldarrikapen geratu da horren adierazgarri. Zoritxarrez, eta bereziki Euskal Herriari dagokionez, bertaratzen saiatu ziren baina ez bertokotzen; hau da, ez ziren saiatu Euskal Herriak garai hartan bizi zuen zapalkuntza-egoeraren eta askapen-dinamikaren barrutik lantzen askapen-teologia. Besteren artean Hego Amerikako askapen-teologiaren oinarriko “dependencia” kontzeptua ez zen egokiena Euskal Herriko egoera sozio-politiko eta kulturala aztertzeke.

---

***Ez ziren saiatu Euskal Herriak garai hartan bizi zuen zapalkuntza-egoeraren eta askapen-dinamikaren barrutik lantzen askapen-teologia***

---

Askapen-teologiaren adartzat hartu ohi dute sarritan teologia feminista ere; Euskal Herrian ere badira ildo hori landu duten autoreak, baina ez dirudi bertako ezaugarri berezirik bilatu duenik. *Hemen* aldizkari honetan Carmen Bernabé-k eman zuen 8. zenbakian “Teologia feministaren panorama”, kontinentez kontinente. 13. orrialdean dioenez, “Espainiako emakume teologoek, Europakoek bezala, Ameriketako Estatu Batuetako iturrietatik edan izan dute; baina badirudi, hasia dela jadanik bertakoa eta disziplina arteko izan nahi duen bidea”. Euskal Herriko teologia feministaren aipurik ez dago, Europako Emakumeen Foru Ekumenikoaren presidentea Mari Jose Arana teologo feminista bazen ere garai hartan.

Bestelakoa izan da Euskal Herriko kristau elkarte herritarren ahalegina, Euskal Herriko Apaiz-koordinakundearekin batera. Hego Ameriketako askapen-teologiaren ekarpenetatik abiatuta, gogoeta teologiko originala lantzen saiatu da, Euskal Herriko eta gizarteko zapalkuntza-egoerak, barne-kontradikzioak eta gatazkak, batetik, eta, bestetik, beraien askapen-grina eta -ahalegina irakurriz, eta barruan bizi diren kristau fededunen esperientzia Ebanjelistik kritikoki aztertuz eta argituz. Askapen-teologiaren oinarrian dagoen pobreaken errealitatea zabaldu egin du, pobretasunaren kontzeptu ekonomikoa egokituz, edonola –politikoki, sozialki, kulturalki

edo hizkuntzaren aldetik– minorizatuta eta zapalduta dagoenari; eta giza eskubideen urraketa eta horien aldeko borroka osotasunean hartuz.

Herri-teologia –*teología popular*– ere deitu izan dute korronte hau beraren autoreek, “herri-Elizari” –Iglesia popular– edo kristau elkarte herritarren esperientziaren barrutik eta horien zerbitzuko landua delako. Horren organo nagusietakoa *Herria-2000-Eliza* aldizkaria izan da, 1978tik ia aurtengo urtera arte iraun duena. Felix Placer da korronte horren teologorik eta eragilerik nabarmenen eta oparoena, bere liburu, hitzaldi eta artikulu ugarien bidez; 1985ean idatzi zuen aipaturiko aldizkarian artikulu programatiko iradokitzailea.

Autore berak idatzi berria du liburu panoramikoa, Kristau Elkarte Herritarrak, Euskal Herriko Apaiz Koordinakundea eta Herria-2000-Eliza (KEH+EHAK+H-2000-E) taldeen, hiruren 50 urteko historia bateratua eta analisisa egiten dituen: *Euskal Eliza. Iglesia popular en Euskal Herria. La alternativa eclesial de Comunidades Cristianas Populares, Coordinadora de Sacerdotes de Euskal Herria y Herria 2000 Eliza* –agian artikulu hau argitaratu baino lehen kalean izango da–. Bertan ikus daiteke taldeek landutako teologiari buruzko kapitulua ere: “Una teología popular vasca. Hacia una euskal teología”. Kapituluaren lehen esaldi pare bat dakart hona: “Una teología propia, elaborada desde y en el contexto que vive cada pueblo, es imprescindible para fundamentar y consolidar una Iglesia popular. A su vez, una teología actualizada y comprometida, desde y para Euskal Herria, debe servir a nuestras comunidades y apoyar el avance de una Euskal Eliza para ofrecer sus respuestas a los problemas que nuestro Pueblo vive”... “Esta forma de “teología desde el pueblo/ Herriarengandiko teología”, fue de las primeras tareas que los tres colectivos se plantearon para ir realizando la Iglesia popular, Euskal Eliza”. Kapituluaren azpitituluaren iradokita dago euskararen erabilerarena, euskal teologia herritara lantzeko orduan; beherago esplizituago dator formulatuta horren beharra, “euskal teología” izango bada, eta hutsunea.

Garbi dago teología euskaraz landua, besterik gabe, ez dela “euskal teología”; baina analisi soziolinguistiko behinenak erakusten duenean euskarak jasan duen zapalkuntza-historia eta gaur ere euskaldunek jasaten duten beren hizkuntza propioaren murriztapen-egoera gure gizartean, orduan euskararen beraren berreskurapen osoa eta normalkuntza Herriaren

askapen-dinamikaren motore funtsezkoetako bat da, eta, beraz, askapen-teologiaren gogoeta-gai. Hizkuntzaren eta hizkuntz murriztapenaren teologiak bere lekua du Euskal Herritik landutako askapen-teologian. Andres Ibañezek, euskarari buruz ziharduela, “señal principal del Pueblo Vasco”, zera eskatzen omen zuen, *Pluralismo sociocultural y fe cristiana* (1990) kongresuan: “Una teología que brote de las propias raíces culturales y lingüísticas... una teología reexpresada en formas originales, según el propio genio del Pueblo Vasco... “una teología tan enteramente vasca como cristiana”. Eta Placer-ek berak dioenez aipaturiko liburuan, “la minorización colectiva es una forma de dominación y pobreza y, como tal, llamada de Dios a la solidaridad en favor de la liberación de los pueblos”

---

**Garbi dago teologia  
euskaraz landua, besterik  
gabe, ez dela “euskal  
teologia”**

---

Zortzi bat orrialdeko bibliografia luzea eskaintzen digu Placer-ek –artikulu, koaderno, ikastaro eta agiri– non hiru taldeek beren gogoeta, euskal Eliza herritarrari buruzkoa eta teologikoa landu baitute. Beraz, ez naiz luzatuko azalpen gehiagorik ematen. Dena dela, ahaleginak ahalegin, oraindik pentsamendu teologiko zatikakoa eta gehienbat zirkunstantziala gertatzen da taldeek landutako herri-teologiarena; eta teologia sistematiko eta akademikoak lantzen dituen gai eta eremu teologiko handien gogoeta berria, Eliza herritarraren ikuspegitik egitekoa, eginkizun geratzen da oraingoz.

“Euskal teologiarena” ez da ideia, amets edo asmo berria; esamolde hori erabili, aurrenik Rikardo Arregik erabili zuen 1967ko bere artikulu ospetsuan: “Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu” (*Jakin* 27/28, 1967), “Baina non da euskal Theologia. Apenas ezer ikusten den”, salatu zuenean. Handik urte batzuetara (1976) Txalintxo ezizenekoak hartu zuen esamolde bera *Goiz Argi* aldizkariko “Euskal Teoloji billa” artikuluan. Bertan nik neuk urtebete lehenago idatzitako “Sozialismoaren aldeko kristauak” artikulu luzearen azken bi orrialdeetan iradokitako ideien kritika egin zuen, “euskal teologiaren” kontzeptua

baztertuz; neronek ez nuen, ordea, oker ez banago, “euskal teologia” esamolderik erabili idazlan hartan; “Euskal SAKen teologia” titulu pean eskaini nituen neure gogoeta kritikoak, Euskal Herritik egindako askapen-teologiari “kultur teologiaren” forma zegokiola iradokiz: “Sozialismoaren argitan euskal SAKe egin nahi duen teologiako gogoetak eta kritikak ere kulturaren teologia –hobe esanda, kultur teologia– oinarritzat eta bidetzat hartu beharko lukeela iruditzen zait” (76. or.). Handik laster, Jabier Basurko teologoak gorago aipatua dudan idazlan mamitsua idatzi zuen *Jaunaren Deia* aldizkari berean, teologiaren historia laburra eskainiz, eta batez ere Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorengo 20 urteetan zabalduriko korrante teologiko berriei buruz, munduan eta baita Euskal Herrian ere. Testuinguru horretan kritikatu zuen nik iradokitako “kultur teologia” kontzeptuaren egokitasuna, batez ere Paul Tillich-en *Theology of Culture* obraren oihartzuna

18

**“Baina non da euskal  
Theologia. Apenas ezer  
ikusten den”**

zeramalako. Egia esan, autore horren pentsamendua ezaguna nuen, eta beraren liburu bat euskaratua ere bai –*Fedearen dinamika*–, baina, terminologia aparte, garbi zegoela uste dut bestelako analisi eta testuinguruan ulertzekoa zela kulturaren eta fedearen –kulturaren eta teologiaren– arteko harremana nire idazlanean; Tillich-en pentsamendua, erakargarria eta sakona izanik ere, urrun samar dago askapen-teologiaren lerroetatik. *Jaunaren Deian* bertan argitaraturiko beste idazlan batez zehaztu eta sakondu ahal izan nuela uste dut neure iritzia. Honetara zuen titulua: “Kultur Teologia eta askapen-teologia. Euskal Teologia”, gorago ere aipatua. Bertan “euskal teologiaren” forma egokitzen kultur teologia zela defenditu eta arrazoitu nuen berriro, “kulturaren teologiatik” eta “teologia kulturaletik” bereiziz.

Gerora beste zenbait artikulutan zehaztuz joan nintzen neure aldetik Euskal Herrian eta Euskal Herritik landutako *kultur teologiarena* zenbait artikuluren bidez, batez ere KEH+EHAH+H-2000-E taldeen gogoeta teologikoaren testuinguruan. Dena dela, argibide gehiagoren zain dagoela iruditzen zait.

Berrogei urte geroago “euskal teologia” esamoldea zabalduago dagoen honetan, errepikatu beharra dut euskaraz egindako teologia ez dela besterik

gabe euskal teologia; baina horretaz hitz egingo badugu, nahitaezkoa da horren abiaburuan eta oinarrian ipintzea euskararena: gogoeta teologikoa lantzeko eta adierazteko (ikasteko eta irakasteko) tresna edo mintzabide bezala. Horrela bakarrik gaitu ahal izango dugu euskara bera pentsamendu teologikoa adierazteko. Nabaria da oso murrizta dugula euskarazko produkzio teologikoa, Kontzilioaren ondoren seminarioetako ikasleren batzuk beren ahaleginak egin bazituzten ere beren teologiako ikasgaiaren batzuk euskaraz ipintzen (apunteak); ahalegin horretatik azpimarratzekoa da *Jaunaren Deia* aldizkariaren ekarria, eta baita *Hemen* aldizkari honena ere, zuzenean teologi aldizkaria ez baldin bada ere. Eskertzekoa da bereziki Deustuko Teologi Fakultatearen ekimenez argitaraturiko “Erlijio kulturaren bilduma” (20 bat tomatokoa), nire ustez aurrerabidea beharko lukeena. Aipatzekoak dira Fakultate berean zenbait irakaslek egindako ahalegina teologiako gairen batzuk behintzat euskaraz irakasteko. Ildo honetatik gogoratu nahiko nuke 1973-1977 inguruan erabilitako asmoa, Deustun bertan Teologi Institutua sortzekoa, euskaraz irakasteko teologia; aurreneko proiektua –aurreproiektua– Fakultatearen barruan bideratu zen, baina arduradunek ez zioten nonbait aurrerabiderik aurkitu. Ondoren Euskal Herriko goreneko nagusien (erlijiosoen probintzialen eta gotzainen) batzuk saiatu ziren bultzatzen Euskarazko Teologi Institutuarena, baina asmo horrek ere porrot egin zuen.

Dena dela, teologiako hizkuntza izatearekin batera, eta Euskal Herrian eta Herritik lantzeko askapen-teologiaren ikuspegitik, gogoeta-gai espezifikoak ere izan beharko lukeela uste dut hizkuntzak, euskararen murriztapen-egoera soziolinguistikoa bertako kristau fededun euskaldunen minorizazio-esperientziaren elementu garrantzizkoa delako.

Bukatzeko azken urteotan gure artean dabilzan bi joera edo bilaketa seinالاتu nahi ditut, “euskal teologiaren” bidea ireki nahian dihardutenak.

---

***Eskertzekoa da bereziki  
Deustuko Teologi  
Fakultatearen ekimenez  
argitaraturiko “Erlijio  
kulturaren bilduma”***

---

Hemen aldizkari honetan bertan Sebastian Trujillok argitaratutako artikulua da horietako baten adierazgarria: “Euskal teologia baterako zuinak”. Ondo ulertzen badut, Euskal Herriaren erlijiozko sustrai tradizionaletan ikusten du “euskal teologia” lantzeko oinarrizko materia. “Jainko(ar)en gaineko esperientziak, ohiturak, erritoak, konjuruak, otoitzak, ospakizunak, mitoak... non, han dugu Jainkoari buruz tratatu sistematiko bat, hotz, teologia bat eraikitzeke materia edo gaia”. Euskal etnologiak erakusten digu materia hori. Beraren iritziz, euskal erlijiotasun tradizionalak badu bere berezitasun hainbat, zazpitan biltzen dituenak. Ez dakit zenbateraino duten baliagarria “materia” etnologiko hori gaurko Euskal Herriko gizon-emakume eta teologo kristauak beren fedeari buruzko teologia lantzeko;

***Euskal Herriaren erlijiozko  
sustrai tradizionaletan  
ikusten du “euskal teologia”  
lantzeko oinarrizko materia***

dena dela, materia gordina besterik ez da hori, kristau fedea eta esperientziak bere baitatik konfiguratu beharko lukeena. Material etnografikoa ez da kristau teologiaren iturria, fededunaren bizi-esperientziakoa ez baldin bada; bestela erlijio-fenomenologian geratzeko arriskua dugu, teologia izatera iritsi gabe.

Beste ildo, guztiz interesgarria iruditzen zaidana, geure garaiko euskal idazle eta poeten testuetan laguntza bilatzea, euskal teologia eraikitzeke ahaleginean; ez testu sakratutzat hartuz horiek, baina bai eguneko euskal kulturaren eta arnasa erlijiozkoaren irakurle eta interpretetzat. Teologiak, zientziakontzeptuala izateaz gain, badu hurbiltasunik hizkera poetikoarekin. Euskal poesia erlijiozkoa bere gailurrera iritsi dela uste dut gure garaiotan: Jean Diharce “Iratzeder”, Bitoriano Gandiaga, Joan Mari Lekuona, Joxean Artze, Patxi Ezkiaga dira horren lekuko nagusiak. Horien arnasa erlijiozkoa eta ageri duten Jainkoaren irudia aztertzen aditu bat baino gehiago saiatu da: Gaspar Martínez F. de Larrinoa, Joxe Arregi, Jose Mari Kortazar, gorago aipaturiko Sebastián García Trujillo, besteak beste. Hemen bereziki Kortazarren lana nabarmendu nahi dut, teologiako doktoretza-tesia, Joxe Arregiren zuzendaritza pean landua: *Erljioa gaia Gandiagaren poesian*.

Uste dudanez, Gandiagaren poesiak inspirazio oparoa eskaintzen du Teologiako hainbat gai Euskal Herrian eta Euskal Herritik lantzeko: lurra

eta izadia, bizia –bizimina eta bizipoza–, hizkuntza (euskara), pobrea... Gandiagaren “jende baja” eta askapen-teologiaren “pobrea” hurbilekoak dira; deskripzio soziologikoarekin batera –jende minorizatua, gutxitua, ekonomikoki eta sozialki, kulturaren eta hizkuntzaren aldetik–, bizipen eta emozio karga handia du horrek fraide poetarentzat, bertatik bizi izan duelako “bajuen” esperientzia; ikuspegi soziologikoaz gain, hemen bereziki dagokiguna da, poeta “teologo” berak eskaintzen digun kontzeptuaren irakurketa teologikoa: Jainkoaren “bajada” Jesus haurragan horixe baita, bajuen artera bajatzea eta bajuetako bihurtzea –bajutzea–: “..Jainko handi zinen, / Jainko handi zara, / eta hala ta guztiz / hor zure *bajada*, / zeruen zerutik / ikuilu hortara, / bi gaixo pobreren / beso gorritara” (“Gabon bakoitzeko” hasten den olerkiaren azken bertsoa.